

Jolas eta Ekin!!

| Manifestua |

Hezkuntza Sistema, gizarte hobe bat lortzera begira, pertsonak prestatzeko mekanismo gisa ulertzen dugu, eta hemen munduaren gaineko hausnarketa egiteko esparru gisa planteatuko genuke, ez soilik mundua erreproduzitzeko esparru modura.

Jolas eta Ekinen Hezkuntza Sistemaren eta Gizartea Eraldatzeko Hezkuntzaren arteko aliantzaren alde egiten dugu lan. Aliantza horrek justizia eta herritartasun aktiboa oinarri dituen hezkuntza mota bat sustatuko luke, gizarte bidezkoago, iraunkorrago eta gizatiarragoa lortzeko, azken finean, bizitza zoriontsuago eta hobea guztiontzako.

Gaur egun krisi kultural eta ekonomiko global batean murgilduta gaude eta honek esparru sozialean, kulturean, ingumenean edo profesionalean erronka berriak jartzen dizkigu. Garrantzitsua da pertsona libreak hezte eta gizartean parte-hartze gaitasunak garatzen lagunduko dien hezkuntza mota bat sustatzea, justizia sozialean, parekotasunean, jasangarritasunean eta elkartasunean oinarritutako gizarte berri bat eraikitzeko. Hau da, norbanakoen eta komunitateen bizi-kalitatearen etengabeko hobekuntza lortzeko lan egiten duen hezkuntza sistema, eta ez soilik ezarritako ordena soziala erreproduzitzeko, batez ere desberdintasunak eta pobrezia gora egiten duten garai hauetan eta ingurumenaren iraunkortasuna eta bizitzarako iraunkortasuna arriskuan daudenean. Horretarako, beste aukera batzuk daude, eskola paradigma eta jarduera berrietara zabaltzeko eta horren bidez hezkuntza arloaren barruan posible diren beste mundu batzuk bilatu eta probak egiteko, Giza Garapen Jasangarrian eta Herritartasun Aktiboan oinarrituko diren munduak.

Jolas eta Ekin Gizarte Eraldatzeko Hezkuntzaren partzuergoaren abiapuntua honakoa da: Hezkuntza Sistema ez dela soilik pertsonak lan-merkatutarako prestatzeko tresna bat, baizik eta pertsona osoak prestatzekoa, balio eta konpromiso sozial batzuk dituzten pertsonak. Horregatik, uste dugu ikasleen garapen pertsonal eta profesionala bideratzeko orduan ezinbestekoa dela irizpide etikoak kontuan hartzea, gizartearen hobekuntzari begira.

Jolas eta Ekinek irudikatzen duen eskola motak munduaren irakurketa kritikoa egiteko eta balio solidario eta gizatiarrago batzuen babespean berritzeko tresnak eman behar dizkie pertsonari. Aldi berean, ekimena, sormena, komunikazioa, ikuspegi kritikoa, erantzukizuna, erabakiak hartzea, lantaldean aritzea... krisian eta etengabeko aldaketan dagoen gizarte batek eskatzen dituen tresna eta gizarte trebetasunak dira. Horrek behar-beharrezko bihurtzen du ziurgabetasunez beteriko etorkizunari aurre egiteko moduan dauden pertsonak prestatzea, tresna horiek eta etika solidarioa izango dituzten pertsonak. Horregatik uste dugu hezkuntza ikerketarako esparru bat izan daitekeela, eta ikasleen parte-hartze sozialaren bidez, proiektu berriak bilatzea, garatzea eta probak egitea beraien hezkuntza-prozesuaren parte izan daitekeela.

Zentzu horretan, Gizartea Eraldatzeko Hezkuntza ezinbesteko aliatua da eskola solidario eta parte-hartzaile bat eraikitzeko orduan, pertsonaren garapen integralean eta komunitatearen hobekuntzan lan egiten duen eskola eta, aldi berean, hezkuntza sistemari berrikuntzarako esparru ezin hobe ematen dion bitartean, bai hezkuntza arloan, bai arlo sozialean.